

**Ebazpena: 70/2022**

**Espedientea: 23/2014**

Vitoria-Gasteizen, 2022ko urriaren 6an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak– honako erabaki hau hartu du:

### **ERABAKIA**

Bizkaiko Foru Aldundiak, (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioeko Estatu Agentziarekiko (aurrerantzean, ZAEA) planteatutako gatazkari buruz, BFBSLren zerga-egoitza 2011ko irailaren 1etik aurrera aldatzearen inguruan, zeina 23/2014 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari baita Arbitraje Batzorde honetan.

### **AURREKARIAK**

1.- BFBSL enpresaren egoitza soziala Bilboko portuan dago. BBAISaren izenean eta kontura, Bilboko portuan helmuga eta abiapuntua duten itsas garraioko jardueren eragiketa lagungarriak eta osagarriak kudeatzea da sozietatearen xedea.

2.- Hala ere, jakinarazpenak egiteko helbidea, harremanetarako telefonoa, ahalduna eta harremanetarako pertsona Kantabrian daude.

**3.-** Bere jarduera, funtsean, honako hau da: BFBSL taldeko bezeroei eta eskifaiari eskala-egunetan laguntzea, administrazio publikoekin lankidetzaharremanak garatzea, eta tokiko hornitzaileekin enkarguak bilatu, harremanetan jarri eta formalizatzea; 2012ko urrirako sozietateak bere langileekin eta egoitza sozialean duen lantokian lan egitea aurreikusita zegoen. Kudeaketa eta zuzendaritza, berriz, profesional independenteen bidez egingo zen, BBAISAK Roscoffen dituen langileekin koordinatuta, baina hasiera batean BBAISAKo administratzaile eta bazkide bakarraren ordezkariak zuzenean egingo zuen.

Hala ere, 2013ko ekainean BFBSLk bere jarduera Kantabriatik joaten diren langileekin egiten du oraindik.

**4.-** 2013ko uztailaren 29an, BFAk ZAEARI jakinarazi zion BFBSLren egoitza Kantabriara aldatzeko proposamena, eta 2011ko irailaren 1etik aurrera izango zituen ondorioak erabakiak, atzeraeraginez.

**5.-** Bi hilabete igaro ondoren, Ekonomia Itunarekin eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduarekin bat etorrira, *ratione temporis* indarrean zeuden idazkeren arabera, ZAEAK ez zionez aipatutako proposamenari erantzun, BFAk 2014ko maiatzaren 8an aurkeztu zuen gatazka Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean.

**6-** Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da ZAEAK alegazioak egin eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. ZAEAK izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatu ondoren, azkenean, amore emanda, onartu egin da BFAk proposatutako egoitza-aldaketa.

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**1.-** Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, artikulu horrek «Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea» eginkizuna esleitzen baitio.

## 2.- Amore ematea.

Interesdunik eta, bereziki, zergapekoa bera aurkeztu ez denez, ZAEAk amore emateak, BFAk egindako egoitza-aldaketaren proposamena onartuz, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragin du, eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratzen den prozeduraren xedea gerora desagertzea eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

### **ERABAKITZEN DU**

1.- Gatazka artxibatzea prozeduraren xedea gerora desagertu delako, ZAEAk amore eman baitu BFAk BFBSLren egoitza aldatzeko egindako proposamenean; 2011ko irailaren 1etik aurrerantzean izango ditu atzeraeraginak.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta BFBSLri jakinaraztea.